

ZER ULERTZEN DUGU BERRIKUNTZA EGITASMO GISA?

- **Berrikuntza metodologikoa. Planaren garapenean eragingo duten egitasmoak:**
 - Praktika onak.
 - Lidergoa bultzatzeko egitasmoak. Liderren eredugarritasuna lantzeko proiektu berritzaileak.
 - Motibazio saio berritzaileak.
 - Euskara planean autonomiaz aritzeko egitasmo berritzaileak.
 - Sormen tailer berritzaileak.
 - TELP ikastaroak.
 - Ikerkuntzan eta berorren zabalkundean euskararen erabilera areagotzea.
 - Enpresan estrategikoak diren arloetan euskararen erabilera areagotzeko egitasmo berritzaileak.
- **Web 2.0 egitasmoak. Hauen helburuak izan behar dira: web 2.0ko baliabideak erabiliz euskararen erabilera areagotzea eta lankide, hornitzaile zein bezeroekiko komunikazioa hobetzea. Adibidez:**
 - LinkedIn, xing, elgg plataforma profesionalen erabilera.
 - Facebook, twitter eta tuenti bezalako sare sozialetan parte hartzea bezeroekiko komunikazioan euskararen erabilera areagotu eta enpresaren irudia hobetzeko.
 - Euskarazko software librearen zabalkunde eta erabilerarako egitasmoak eta berau erabiltzeko motibazio saioak.
 - Blogen eta wikien erabilera barne zein kanpo komunikaziorako.
 - Moodle plataformak bezalakoak sortu eta erabili prestakuntzarako, prestakuntza euskaraz egin ahal izango dela ziurtatuz.
 - Nazioartekotze prozesuan ere euskararen erabilera ziurtatzea eta areagotzea.
 - Skype bidezko komunikazioan euskararen erabilera areagotu.
 - Produktuen katalogo pertsonalizatua euskaraz eta on-line.
 - Aurkezpen korporatiboak edo euskara planaren DVDak, metodologia parte-hartzaileaz sortuak eta motibazioan eragiteko gauza direnak.
 - Euskararen Txokoak (2.0) gune parte-hartzaile bihurtu.

BERRIKUNTZA EGITASMOETAN BALORATUKO EZ DIREN EKIMENAK:

- **Berrikuntza metodologikoa:**

- Enpresaren proiektu berritzaileak (orokorrak, euskarari berari , berez eragiten ez diotenak) euskaratzea edo bere jarraipena euskaraz egitea.
- Metodologian berrikuntza berezirik ez duten eta jendearen planarekiko motibazioan modu eraginkorrean eragiteko diseinatuta ez dauden hausnarketa-saioak.
- Entitateaz kanpoko bazkideekin egon litekeen koordinazio-ekimena.
- Kooperazio egitasmo soilak.
- Enpresaren merkaturatze eredu berria itzultze hutsa.

- **WEB 2.0:**

- Web-gunea euskaratzea.
- Produktuaren iragarkia euskaraz ere egitea.
- Oro har, euskarria edozein dela ere, itzulpen hutsak diren ekimenak.
- Software, aplikazio zein programen euskaratze hutsa.
- Intranet euskaratu edota bertan informazioa euskaraz sartzeko egindako lana.
- Liburuxkak edo berripaper soilak itzultzea edo sortzea.

Egitasmo hauek guztiak berrikuntza egitasmoen barruan sartu ez arren ez du esan nahi aurrekontuaren beste ataletan ezin direnik sartu. Balorazioa egin ostean erabakiko da gastu hau aurrekontuan sar daitekeen eta zein arlotan.